

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako ondarea eta sorkuntza artistikoa ikertzeko Eugenio Murgia bekaren deialdia eta oinarri arautzaileak 2024rako deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2024ko irailaren 12ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 785369.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/785369>).

Lehenengoa. Onuradunak

Beka hauek jasotzeko, beharrezkoa izango da:

2021eko urtarrilaren 1etik EAeko edozein udalerritan etengabe erroldatuta egotea.

Lizentziatu-titulua edo goi-mailako titulazioa izatea, ahal dela garatu beharreko beka-proiektuaren espezialitateari dagokionean, edo proiektuaren diziplinan curriculum esanguratsua izatea, edo irakasle espezialista batek egindako abal-txostena aurkeztea, ikerketa edo kultura-proiektuari lagunduz eta eskatzailearen jakintza eta proposatutako gaia garatzeko gaitasuna bermatuz. Atzerrian edo titulartasun pribatuko ikastetxeetan lortutako tituluak baliozkotuta edo aitortuta egon beharko dute, eta ondorio zibil osoak izan beharko dituzte beka emateko unean.

Beka bi pertsona edo gehiago, talde bat osatuz, batera aurkeztuko balira, guztiek bete beharko dituzte aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak.

Bigarrena. Xedea

Zuiako ondare naturala, kulturala, materiala edo immateriala, linguistikoa eta historikoa kontuan hartzen dituzten proiektu kulturalen bidez, sormen-kezkak garatzeko aukera-espazio bat eskaintzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 12an onartu zituen eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura, 334.480.010, 6.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Udalaren sarrera-erregistroan entregatu beharko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) azaltzen dira.

Murgia, 2024ko irailaren 13a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA